# 11

# DONOSTIA ENTREMUNDOS
# SAN SEBASTIÁN MUNDUEN ARTEAN

**URTARRILA, OTSAILA / ENERO, FEBRERO / 2010**



# 11

# DONOSTIA ENTREMUNDOS
# SAN SEBASTIÁN MUNDUEN ARTEAN

**URTARRILA, OTSAILA / ENERO, FEBRERO / 2010**


4 BIDEO-FORUMA **LA ZONA**
VIDEO-FORUM **LA ZONA**

5 DOKUMENTALAK **DESPLAZATUEN DUINTASUNAGATIK**
DOCUMENTALES **POR LA DIGNIDAD DE LOS DESPLAZADOS**

6 TALLERES **CULTURA ÁRABE**
TAILERRAK **ARABIAR KULTURA**

7 TAILERRA **LANKIDETZAKO PROIEKTU ERALDATZAILEAK ERAIKITZEA**
TALLER **CONSTRUIR PROYECTOS TRANSFORMADORES DE COOPERACIÓN**

8 MURALA **EGIZU PLANETAREN ALDE. AUKERA EZAZU BIDEZKO MERKATARITZA**
MURAL **DA LA CARA POR EL PLANETA. ELIGE COMERCIO JUSTO**

9 IKASTAROA **LANKIDETZA ETA GARAPENA**
CURSO **COOPERACIÓN Y DESARROLLO**

10 IKASTAROA **XXI. MENDEKO INDIA EZTABAIDAN: GIZA ESKUBIDEETAN, GENEROAN ETA GARAPENEAN OINARRITUTAKO BEGIRADA**
CURSO **LA INDIA DEL S. XXI A DEBATE: UNA MIRADA A LOS DD.HH, EL GÉNERO Y EL DESARROLLO**

11 JARDUNALDIA **ELIKAGAIEN SUBIRANOTASUNAREN ALDEKO HAMAIKETAKOA**
JORNADA **HAMAIKETAKO A FAVOR DE LA SOBERANIA ALIMENTARIA**

12 JARDUNALDIA **GURE ESKUBIDEEN ALDE JOLASTUKO?**
JORNADA **¿JUGAMOS POR NUESTROS DERECHOS?**

## BIDEO-FORUMA
## LA ZONA

1986ko apirilaren 26an, Chernobileko zentral nuklearraren sute batek bereziki Bielorrusia, Ukraina eta Errusia jo zituen gas-ihes bat eragin zuen. OMEren arabera Hiroshima eta Nagasakiko bonbak baino 200 aldiz handiagoa izan zen isuri zen erradioaktibitatea. 20 urte geroago Morgan taldea Ukrainako eskualde ukituenetara joan zen hango herritarrak nola bizi ziren ikusteko. Filmaren istorio hau Chernobil elkartearen eskutik Euskal Herrian egondako 3 umeren bizitzan oinarritzen da. OMEk, pertsona hauek zonalde kutsatuetatik kanpo gutxienez 40 egun igarotzea aholkatzen du. Filmaren ondoren solasaldi bat egongo da Chernobil elkarteko partaideekin.

Noiz: urtarrilak 12
Ordua: 19:ootan
Non: Larrotxene Kultur etxean

CHERNOBIL ELKARTEA
Tlf: 665 71 72 66
E-mail: asociacionchernobilelkartea@hotmail.com
www.chernobil.org

## VIDEO-FORUM
## LA ZONA

El 26 de abril de 1986, un incendio en la central nuclear de Chernobil provocó una fuga radiactiva que afectó especialmente a Bielorrusia, Ucrania y Rusia. Según la OMS, la radiactividad emitida fue 200 veces más que la de las bombas de Hiroshima y Nagasaki juntas. Veinte años después, el equipo de Morgan se acercó a la parte más afectada de Ucrania para comprobar el estado en el que viven sus habitantes. Los tres niños y niñas en las que se centra esta historia han visitado el País Vasco de la mano de Chernobil Elkartea, siguiendo el consejo de la OMS, que recomienda que pasen fuera de las zonas contaminadas al menos cuarenta días al año, con el fin de reforzar sus defensas. Posteriormente habrá un coloquio con miembros de Chernobil Elkartea.

Día: 12 enero
Hora: 19:00
Lugar: Centro Cultural Larrotxene

ASOCIACIÓN CHERNOBIL
Tlf: 665 71 72 66
E-mail: asociacionchernobilelkartea@hotmail.com
www.chernobil.org



## DOKUMENTALAK
## DESPLAZATUEN DUINTASUNAGATIK

Urtarril eta otsaila bitartean herri desplazatuen egoera larria erakusten duten zenbait ikus-entzunezko proiektatuko ditugu. Desplazatu horietako batzuk bere herrialdeko beheko kastetakoak direlako baztertuak dira, beste batzuk ondoko herrialdeak haiena inbaditu eta bota egin dituzte. Gerrek, barne gerrateek eta muga artifizialek hondatutako herriak erakutsiko dizkigute dokumental hauek; baina bertan ageri diren herriek erakutsiko dute gai direla bere errautsetatik berriro sortzeko, duten gizatasun eta maitasun handia erakutsiz. Azken finean, apaingarririk gabeko errealitatera hurbildu nahi gaituzte dokumental hauek, eta baita haien duintasunaren alde borrokatzen diren herrien gizatasunera ere.

Noiz: Urtarrilaren 12a eta 26a; otsailaren 2a eta 16a
Ordua: 19:30
Non: Casares Kultur Etxea

Haziak ONGD-Berpiztu
Telefonoa: 943.39 96 95
E-maila: haziak@berpiztu.org
www.berpiztu.org

## DOCUMENTALES
## POR LA DIGNIDAD DE LOS DESPLAZADOS

Durante los meses de enero y febrero se van a proyectar unos documentales que muestran la situación de pueblos desplazados, unos marginados por pertenecer a las castas bajas de su país, otros expulsados de su territorio por una invasión del país vecino. Documentales que muestran pueblos devastados por guerras, luchas internas, fronteras artificiales, pero que son capaces de resurgir de sus cenizas para mostrar la humanidad y el amor que poseen. En definitiva unos documentales que pretenden acercarnos una realidad global sin adornos; el humanismo de pueblos que luchan por su dignidad.

Día:12 y 26 de enero, 2 y 16 de febrero
Hora: 19:30
Lugar: Casa Cultura Casares

Haziak ONGD-Berpiztu
Tlf: 943.39 96 95
E-mail: haziak@berpiztu.org
www.berpiztu.org



TAILERRAK

## ARABIAR KULTURA

Jardunaldi hauekin, donostiar biztanleria Arabiar Kulturaren espresio forma desberdinetara gerturatu nahi da. Helburu hau lortzearren, Nazioarteko Solidaritza Taldeak arabiar degustazio gastronomikoak, dantza tradizionalen tailerrak eta idazkera tailerrak prestatzeaz gain, arabiar biztanlegoak Euskadin izandako integrazioari buruzko hausnarketa mahai inguru partehartzaileak ere antolatu ditu. Musika tradizional arabiarraren kontzertu bat ere egongo da.

Noiz: Urtarrilak16
Ordua: 17.00-21.00
Non: Guardetxea (Urgull)

SOLIDARIDAD INTERNACIONAL
Tlf: 944 792 258
E-mail: laura@sol-inter.org
www.sol-inter.org

TALLERES

## CULTURA ÁRABE

Esta jornada tiene por objetivo acercar a la ciudadanía donostiarra las diferentes formas de expresión de la Cultura Árabe. Para ello Solidaridad Internacional ha organizado una serie de talleres de degustación gastronómica, bailes tradicionales del mundo árabe, escritura árabe, así como debates participativos para reflexionar sobre la integración de los y las ciudadanas de cultura árabe en el País Vasco. Habrá también un concierto de música tradicional árabe.

Día: 16 de enero
Hora: 17.00-21.00 horas
Lugar: Casa del Guarda (Urgull)

SOLIDARIDAD INTERNACIONAL
Tlf: 944 792 258
E-mail: laura@sol-inter.org
www.sol-inter.org



TAILERRA
## LANKIDETZAKO PROIEKTU ERALDATZAILEAK ERAIKITZEA

Marco Logikoaren ikuspegia Garapenerako Lankidetzako proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko metodo analitikoa da, eta metodo parte-hartzailea izatea da bere ezaugarri nagusietako bat.Berdintasun eta Lankidetza Sailak antolatu duen ikastaro hau GGKE-etan garapenerako lankidetza proiektuak egiten dituzten langile edo boluntarioei zuzenduta dago, nahiz eta irekia den interesa duen ororentzat. Ikastaroaren helburua proiektuen diseinua, gauzatzea eta ebaluaketa garatzeko tresnak eskaintzea da, eta era berean, lankidetza arloan erakundeak garatzen duen lanari buruzko hausnarketa egitea ere. Izen ematea urtarrilaren 13a arte.

Noiz: urtarrilak 16, 23, 30ª eta otsailak 6
Ordua: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00
Non: lekua zehazteke

BERDINTASUN ETA LANKIDETZA ATALA
Tlf: 943 48 14 71
E-mail: lankidetza_cooperacion@donostia.org

TALLER
## CONSTRUIR PROYECTOS TRANSFORMADORES DE COOPERACIÓN

El enfoque del Marco Lógico es un método analítico utilizado para planificar y gestionar proyectos de Cooperación Internacional y se caracteriza por ser un método participativo. Este curso organizado por la Sección de Igualdad y Cooperación está especialmente dirigido a aquellas personas voluntarias o trabajadoras de ONGD que estén llevando a cabo proyectos de cooperación al desarrollo, aunque está abierto a todas las personas interesadas. El objetivo de este curso es la adquisición de herramientas para el diseño, ejecución y evaluación de proyectos que sirvan a su vez para reflexionar sobre el propio trabajo que la organización realiza en el ámbito de la cooperación. Inscripciones antes del 13 de enero.

Día: 16, 23, 30 de enero y 6 de febrero
Hora: 10:00-14:00 y 16:00-20:00
Lugar: por confirmar

SECCION DE IGUALDAD Y COOPERACIÓN
Tlf: 943 48 14 71
E-mail: lankidetza_cooperacion@donostia.org



MURALA

## EGIZU PLANETAREN ALDE. AUKERA EZAZU BIDEZKO MERKATARITZA

Argazki bat atereaz beren babesa erakutsi zuten pertsona askoren argazkiekin osatutako horma-irudi bat izango da erakusgai. Mural honek “Egizu planetaren alde. Aukera ezazu bidezko merkataritza” kanpainaren irudia erakusten du. Ekintza hau sostengatu zuten pertsona ezagunen – politikoak, kirolariak, sukaldariak, artistak - adierazpenekin egindako bideoa ere emango da. Martxoan egindako Bidezko Merkataritzaren aldeko kanpaina hau ingurumen justiziaren gaian zentratzen da, herritarrak eta agintariak ikus dezaten Bidezko Merkataritza pobrezia eta klima aldaketari aurre egiteko dagoen tresnetariko bat dela.

Noiz: urtarrilaren 18tik 28ra arte
Ordua: astelehenetik ostiralera 16:00etatik 20:30era
eta larunbatean 17:00etatik 21:00etara
Non: Ernest Lluch Kultur Etxean

BIDEZKO MERKATARITZAREN ESTATUKO KOORDINAKUNDEA
Tel: 943 46 15 78
E-maila: secretaria@comerciojusto.org
www.comerciojusto.org

MURAL

## DA LA CARA POR EL PLANETA. ELIGE COMERCIO JUSTO

Se expondrá un mural con la imagen de la campaña “Da la cara por el planeta. Elige comercio justo” formado por las múltiples fotografías de las personas que mostraron su apoyo haciéndose una foto. También se proyectará un vídeo con las declaraciones de las personas conocidas - políticos, deportistas, cocineros, artistas - que apoyaron esta iniciativa. Esta campaña de Comercio Justo que se realizó en marzo se centra en la temática de la justicia medioambiental pretendiendo concienciar a la población y a las autoridades políticas de que el Comercio Justo es una de las herramientas para combatir la pobreza y el cambio climático.

Día: 18 -28 de enero
Hora: Lunes a viernes de 16:00 a 20:30
y sábado de 17:00 a 21:00.
Lugar: Centro Cultural Ernest Lluch

COORDINADORA ESTATAL DE COMERCIO JUSTO
Tlf: 943 46 15 78
E-mail: secretaria@comerciojusto.org
www.comerciojusto.org



IKASTAROA
## LANKIDETZA ETA GARAPENA

Lankidetza eta Garapen ikastaro honen helburua da Hegoko herrialdeekiko interdependentzia kontzientzia sustatzea. Lankidetza eta Garapen arlo ezberdinetan trebakuntza eskainiko da, besteak beste: errealitatearen azterketa, kulturaniztasuna, giza eskubideak, generoa eta garapena, kontsumo arduratsua eta abar. Matrikulatzeko epea urtarrilaren 7tik 21era arte da eta 50 euroko matrikula da. Pertsona boluntarioek beka eskatzeko aukera izango dute.

Noiz: larunbatetan urtarrilaren 30etik martxoaren 13a arte
Ordua: 10:00-18:30
Non: Donostiako Elizbarrutiko Seminarioan
(Heriz pasealekua 82, Antigua)

ADSIS, ALBOAN, CALCUTA ONDOAN, CÁRITAS, FISC, INTERED, MANOS UNIDAS, PROCLADE, TAU FUNDAZIOA
Tel.: 943 21 24 99
E-maila: plo12snsn@euskalnet.net

CURSO
## COOPERACIÓN Y DESARROLLO

Este curso de Cooperación y Desarrollo pretende promover una conciencia de interdependencia con los pueblos del Sur. Posibilita la formación en áreas de cooperación y desarrollo: análisis de la realidad, multiculturalidad, derechos humanos, género y desarrollo, consumo responsable, etc. El plazo de matrícula es del 7 de enero al 21 de enero y la matrícula es de 50 euros. Habrá posibilidad de beca para las personas voluntarias.

Día: los sábados del 30 enero al 13 marzo
Hora: 10:00-18:30
Lugar: Seminario Diocesano
(Pº de Heriz, 82, Antiguo)

ADSIS, ALBOAN, CALCUTA ONDOAN, CÁRITAS, FISC, INTERED, MANOS UNIDAS, PROCLADE, TAU FUNDAZIOA
Tlf: 943 21 24 99
E-mail: plo12snsn@euskalnet.net



IKASTAROA

## XXI. MENDEKO INDIA EZTABAIDAN: GIZA ESKUBIDEETAN, GENEROAN ETA GARAPENEAN OINARRITUTAKO BEGIRADA

Ikastaroak Indiako egungo Giza Eskubideez, Generoaz, Nazioarteko Lankidetzaz eta Kulturaz gogoeta egiteko aukera eman nahi du aditu batzuen laguntzarekin. Herrialde honek dituen aukerei, erronkei eta arazoei buruz hitz egingo da. Izan ere, Indiak dituen 1.148 milioi biztanleetatik %71 landa eremuetan bizi da, 240 milioi pertsonatik gora diskriminatuta daude kastagatik eta emakumeek bere bizitzaren alor guztietan diskriminazio berezia jasaten dute. Doako ikastaroa izango da.

Noiz: Otsailaren 8tik martxoaren 3ra. Astearte eta asteazkenak.
Ordua: 16:00-20:00
Non: EHU. Eskubide fakultatea. Gradu aretoa

CALCUTA ONDOAN
Tlf.: 943 43 18 49
E-mail: info@calcutaondoan.org
www.calcutaondoan.org

CURSO

## LA INDIA DEL S. XXI A DEBATE: UNA MIRADA A LOS DD.HH, EL GÉNERO Y EL DESARROLLO

El curso, presenta una oportunidad para que expertas y expertos en conjunto con la sociedad en general reflexionen sobre DDHH, Género, Cooperación Internacional y Cultura India. Se tratarán las oportunidades, retos, y problemas que afronta un país con más de 1.148 millones de personas, de las cuales un 71% viven en el mundo rural, más de 240 millones son discriminadas por su casta y en el que la mujer sufre una especial discriminación en todos los ámbitos de su vida.  El curso será gratuito.

Día: Del 8 de febrero al 3 de marzo. Lunes y miércoles
Hora: 16:00-20:00
Lugar:  UPV-Facultad de Derecho. Salón de grados

CALCUTA ONDOAN
Tlf.: 943 43 18 49
E-mail: info@calcutaondoan.org
www.calcutaondoan.org



## ELIKAGAIEN SUBIRANOTASUNAREN ALDEKO HAMAIKETAKOA

Jardunaldi honen bitartez Donostiako biztanleei pobrezia eragiten duen egungo eredu agroesportatzailearen, eta batez ere, desberdintasun hauek errotik kentzeko elikagaien subiranotasunaren ereduaren proposamenaren berri eman nahi zaie. Sentsibilizazio jarduera honetan, besteak beste, produktu agroekologikoz hornitutako gosari bat, egungo eredu agroesportatzailearen eta tokiko alternatiben berriak jasotzen dituen aldizkari baten aurkezpena eta film labur batzuen emanaldia eskainiko dira. Ekintzan parte hartuko duten guztiek hamaiketako ekologiko bat dastatzeko aukera izango dute eta argitaratutako aldizkariaren ale bat jasoko dute.

Noiz: otsailaren 14a
Ordua: 11:00
Non: Donostiako Ingurumen Baliabideen Zentroa (Cristina Enea)

MUGARIK GABEKO ALBAITARIAK
Tlf: 695 478 735
E-maila: euskadi@veterinariossinfronteras.org
www.veterinariossinfronteras.org

## HAMAIKETAKO A FAVOR DE LA SOBERANIA ALIMENTARIA

Con esta actividad se pretende sensibilizar a la población de Donostia sobre como el actual modelo agroexportador es causante de pobreza y sobre la propuesta del modelo de la soberanía alimentaria para erradicar esta desigualdad. Se llevarán a cabo distintas actividades, se realizará un desayuno con productos agroecológicos, la presentación de una revista con artículos sobre el actual modelo agroexportador y las alternativas locales, así como la emisión de distintos cortometrajes. Todos y todas las asistentes a este acto podrán degustar el Hamiketako Ecológico y recibirán un ejemplar de la revista editada.

Día: 14 de febrero
Hora: 11.00
Lugar: Centro de Recursos Medioambientales de Donostia (Cristina Enea)

VETERINARIOS SIN FRONTERAS
Tlf: 695 478 735
E-mail: euskadi@veterinariossinfronteras.org
www.veterinariossinfronteras.org



## GURE ESKUBIDEEN ALDE JOLASTUKO?

“Gure eskubideen alde jolastuko gara?” Calcuta Ondoanek jai-giroan 4 -12 urte bitarteko haurrei zuzendutako jolas-aktibitateak biltzen dituen jarduera da. Haurren eskubideen deklarazioaren 20. urteurrenaren harira, elkarteak ekintzak antolatu ditu hainbat balio eta alderdi lantzeko xedez, besteak beste, kultur artekotasuna, elkartasuna, haurren eskubide unibertsalak, Indiako emakumeen egoeraren inguruan gizartea sentsibilizatzea, bidezko merkataritzaren aldeko lana eta ingurumenarekiko errespetua. Tailer ugari eskainiko dira: aurpegiak margotzea, Gogoeta Tailerra, Tailer plastiko sortzailea, Mandalak margotzea, globoflexia, lankidetza jokoak, te indiarra dastatzea, Calcuta Ondoan elkartearen lanaren inguruko informazioa, eta abar. Ezkilatxo Gazte taldearekin lankidetzan egingo da guztia.

Noiz: Otsailak 27
Ordua: Egun osoa (zehazteko)
Non: JM Salaberria kalea, 2-behea (Amara Lokala)

CALCUTA ONDOAN
Tlf.: 943 43 18 49
E-mail: info@calcutaondoan.org
www.calcutaondoan.org

## ¿JUGAMOS POR NUESTROS DERECHOS?

“¿Jugamos por nuestros derechos?” es una actividad lúdica dirigida a niños/as de entre 4 y 12 años mediante la cual desde Calcuta Ondoan queremos trabajar, coincidiendo con el 20 aniversario de la aprobación de la declaración de los derechos de la infancia, los conceptos de interculturalidad, solidaridad y los derechos de la infancia, sensibilizar sobre la situación de las mujeres en India, y favorecer el activismo por el comercio justo y el respeto al medio ambiente. Se realizará distintas actividades como pintura facial, taller de reflexión, taller creativo plástico, coloreado de mandalas y además habrá globofexia, juegos cooperativos, degustación de té indio, información sobre el trabajo de Calcuta Ondoan… Se realiza en colaboración con Ezkilatxo Gaztea Taldea.

Día: 27 de febrero
Hora: todo el día (por definir)
Lugar: JM Salaberria, 2-bajo ( local de Amara)

CALCUTA ONDOAN
Tlf.: 943 43 18 49
E-mail: info@calcutaondoan.org
www.calcutaondoan.org



Parte-hartzaileak
Participantes

**Chernobil Elkartea**
**Asociación Chernobil**

**Haziak Ongd-Berpiztu**

**Solidaridad Internacional**

**Bidezko Merkataritzaren Estatuko Koordinakundea**
**Coordinadora Estatal de Comercio Justo**

**Calcuta Ondoan**

**Mugarik Gabeko Albaitariak**
**Veterinarios Sin Fronteras**

**Lagundu papera aurrezten, Donostia Entremundoseko programazioa zure posta elektronikoan jaso nahi baduzu, deitu 943 481471 telefonora edo idatzi lankidetza_cooperacion@donostia.org helbidera**

**Ayúdanos a ahorrar papel, recibe la programación del Donostia Entremundos en tu correo electrónico o llamando al teléfono 943 481471 o escribiendo a lankidetza_cooperacion@donostia.org**

DONOSTIA
ENTREMUNDOS
SAN SEBASTIAN MUNDUEN ARTEAN

Estudio Lanzagorta

2.400 ale 0,62 euro aleko

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Berdintasun eta Lankidetza Atala
Sección de Igualdad y Cooperación

DONOSTIA KULTURA

SAN SEBASTIAN DONOSTIA 2016

Donostia Hiri Hezitzailea
San Sebastián Ciudad Educadora